

LABURPEN EXEKUTIBOA

ARRISKU PENALEN PREBENTZIOKO ESKULIBURUA

2016KO EKAINA

GUGGENHEIM BILBAO

1. SARRERA

1997ko urrian inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoa estatuan zein nazioartean kultura-erreferentzia gisa indartu da, eta kudeaketari dagokionean gardentasunaren eta zuzentasunaren eredu bihurtu da. Hala, erakundearen esparru guztietarako barne-kontrolako eta jarduteko protokolo ugari edukitzeaz gain, Kode Etiko eta Jardunbide Egokien Kode bat ere badu.

2. PERTSONA JURIDIKOEN ERANTZUKIZUN PENALA

Pertsona juridikoen erantzukizun penala Zuzenbide espainiarrean erregulatu zen 31 bis artikulua erantsi zuen Zigor Kodea Eraldatzeko 5/2010 Lege Organikoaren bidez. Artikulu hori, beranduago, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez aldatu zen.

Araudi horren arabera, pertsona juridikoek arlo penalean erantzuten dute:

- (i) Euren izenean edo euren kontura, eta zuzenean edo zeharka euren onurarako, euren legeordezkariak egindako delituengatik, edo bakarka edo pertsona juridikoaren organo bateko kide gisa, pertsona horren izenean erabakiak hartzeko baimena dutenek, edo erakundearen barruan antolatzeko eta kontrolatzeko ahalmena dutenek egindako delituengatik (egozteko lehen irizpidea).
- (ii) Aurreko puntuan (i) aipatutako pertsona fisikoaren agintaritzaren mende egonda, eta kasuaren baldintza zehatzak kontuan hartuta, jarduera gainbegiratzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko zereginak larriki ez betetzeagatik, gertakariak burutu ahal izan dutenek, zuzenean edo zeharka, pertsona juridikoaren kontura eta onurarako jarduera sozialak gauzatzean egindako delituengatik (egozteko bigarren irizpidea).

Kode Penalak delituen katalogo itxi bat osatu du. Horietakoren bat urratuz gero, pertsona juridikoari erantzukizun penala eskatzeko aukera dago.

Kode Penalaren 31 bis artikuluan ezarritako kontrol-betebeharra betetzeko, enpresak edo erakundeak arrisku penalen prebentzioa benetan betetzeko programa ezarri behar du.

GUGGENHEIM BILBAO

Betetze-programa bat honako hau da: enpresak, ahal den neurrian, bere barruan delituak egitea ekiditeko, eta ekidin ezin badu, delituak egiteko arriskua asko murrizteko eta delitua azkar atzemateko barne-kontrolako eta zaintzako sistema bat.

Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoan jasotako erredakzioaren arabera, Kode Penalaren aipaturako 31 bis artikuluan biltzen dira betetze-programa bat eraginkorra izateko eman behar diren baldintzak.

Irizpide orokor gisa, eta erakundearen izaeraren eta tamainaren arabera eta bertan burutzen den jarduera motaren arabera, betetze-programa batek neurri hauek hartu behar ditu kontuan: Legearen arabera, erakundearen jardueraren garapena bermatuko duten, eta delituak egiteko arriskua prebenitzeko edo murrizteko eta haiek berehala atzemateko neurriak.

3. ARRISKU PENALEN PREBENTZIOKO BETETZE PROGRAMA

Bere konpromiso etikoaren eta araudia betetzeko beste urrats bezala, Guggenheim Bilbao Museoak Arrisku Penalen Prebentzioko Betetze Programa bat ezarri du. Programa honako arau hauek osatzen dute:

1. Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodea.
2. Jokabide Arauak.
3. Arrisku Penalen Prebentzioko Eskuliburua.
4. Salaketen Kanalaren Protokoloa.
5. Jarduketa Protokoloa, irregulartasunak atzematen badira.

Betetze Programa aplikatzeko esparruaren barruan daude Guggenheim Bilbao Museoa osatzen duten hiru erakundeak:

- Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa;
- Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL; eta
- Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL

GUGGENHEIM BILBAO

Beraz, Fundazioarentzako, Tenedora sozietatearentzako eta Inmobiliaria sozietatearentzako programa bakar eta komuna da. Ondorioz, elementu arauemaile, organiko (Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea) eta kontroleko (salaketen kanala, diziplina-sistema) guztiak berdinak dira hiru erakundeentzat.

Zeharka, Programa Museoarekin lotutako pertsoneri eta erakundeei ere zuzenduta dago: hornitzaileak, bezeroak, aholkulariak, eta abar.

4. KODE ETIKOA ETA PRAKTIKA EGOKIEN KODEA

Kode Etikoak eta Jardunbide Egokien Kodeak Museoaren jardura arautzen duen konpromiso etikoa biltzen du. Bertan, ikuspegi arduratsu eta etiko batetik, Museoan norbanakoen eta taldeen jokabideak biltzen dituzten jarduketa-printzipioak eta praktika egokiak zehazten dira. 2015eko abenduaren 14ko bileretan Fundazioaren Patronatuak eta Batzorde Betearazleak, eta 2016ko martxoaren 17ko bileretan Tenedora eta Inmobiliaria sozietateen Administrazio Kontseiluek onartu zuten Kodea.

Zehazki, Kode Etikoak eta Jardunbide Egokien Kodeak helburu hauek ditu:

- Bete behar diren jarraibideak, ereduak eta jokaerak hezuramitzea.
- Museoaren eta zerbitzua ematen dion komunitatearen arteko harremanaren oinarria konfiantza izateko jokabide- eta estandar- multzo bat adieraztea.
- Eguneroko kudeaketan eta lan-jarduerarako gida-lana egitea eta norbanakoaren erantzukizunaren irismena ezartzea.

Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodea Museoaren jardura gidatzen duten honako printzipio eta balio hauetan oinarrituta garatzen da:

1. Artearekiko sentsibiltatea eta errespetua
2. Komunitate artistikoarekin bat egitea
3. Kalitatearekiko konpromisoa
4. Bezeroarenganako ikuspegia
5. Ikuspegi didaktikoa

GUGGENHEIM BILBAO

6. Ikuspegi ekonomikoa
7. Guggenheim Museoein bat egitea eta lankidetzatza
8. Gizartearekiko konpromisoa
9. Pertsonetikiko konfiantza
10. Familiari buruz arduratzen den eta pertsonen aniztasuna aintzat hartuta aukera-berdintasuna sustatzen duen erakundea

5. JOKABIDE ARAUAK

Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritako printzipioetan eta balioetan oinarrituta, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuretan, Fundazioaren Patronatuak eta Batzorde Betearazleak, eta Tenedora eta Inmobiliaria sozietateetako Administrazio Kontseiluek onartutako Jokabide Arauetan biltzen dira Museoaren kudeaketan, jardueran eta funtzionamenduan esku hartuko duten pertsona guztiek —edozein maila hierarkikoa dutela— derrigorrez bete behar dituzten jokabideak eta arau orokorrak. Eta hauek bereziki bete beharko dituzte Museoaren enplegatuek, zuzendariak, gobernu-organoetako kideak, boluntarioek, hornitzaileak eta laguntzaileak, Museoarekin lotzen dituen erlazio motaren arabera. Honako epigrafeen inguruan antolatzen dira:

1. Legeria eta jokabide-betebeharrak betetzea
2. Aukeren berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko politika aktiboa
3. Segurtasuna lanean
4. Gardentasuna kudeaketan eta Ustelkeriaren aurkako politika
5. Interes-gatazkak
6. Kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantziakioa prebenitzea
7. Ingurumena zaintzea
8. Konfidentzialtasuneko obligakioa

9. Jabetza intelektual eta industrialak
10. Artelanen erakusketarekin lotutako arau orokorrak
11. Artelanen erosketarekin eta bajarekin lotutako arau orokorrak
12. Artelanen erregistroarekin, dokumentazioarekin eta kudeaketarekin lotutako arau orokorrak
13. Artelanen artapenarekin eta babesarekin lotutako arau orokorrak
14. Ikerketarekin eta artxiboarekin lotutako arau orokorrak

6. ARRISKU PENALEN PREBENTZIOKO ESKULIBURUA

Kode Etikoan eta Jardunbide Egokien Kodean eta Jokabide Arauetan Museoko kide guztiek jarraitu behar dituzten printzipio etikoen eta arau orokorren multzoa jasotzen bada ere, 2016ko ekainaren 20an egindako bilertan Fundazioaren Patronatuak eta Batzorde Betearazleak, eta Tenedora eta Inmobiliaria sozietateetako Administrazio Kontseiluek onartutako Arrisku Penalen Prebentzioko Eskuliburua da oinarrizko arau egituratzailea, arrisku penalen prebentzioari dagokionean.

Eskuliburuaren xede da Museoan jada finkatuta dagoen betetze-funtzioa osatzea eta delituak prebenitzeko programa eragileetarako nazioarteko praktikak finkatutako estandarretara egokitzea, gaur egun indarrean dauden exigentzia-mailetatik haratago.

Hala, Eskuliburuaren bidez gai honen inguruko alderdi guztiak erregulatzen dira: kontroleko egitura organikoa, arrisku penalen ebaluazioa, eta arrisku horiek prebenitzeko Museoaren kontrol eta barne-prozedura garrantzitsuenak, besteak beste. Eta hori guztia, gai jakin batzuetarako, Eskuliburuak Betetze Programa osatzen duten gainerako arauetara jotzearen kalterik gabe.

Eskuliburua bi zatitan egituratzen da: zati orokor bat eta zati berezi bat.

GUGGENHEIM BILBAO

Zati orokorrean gai hauek lantzen dira:

- Aplikazio-esparrua.
- Museoaren jarduera eta honi lotutako arrisku penal nagusiak.
- Kontroleko egitura organikoa.
- Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea.
- Museoaren erabaki-organo nagusiak.
- Kultura etikoa eta araudia betetzeari buruzkoa.
- Betetze Programa ezagutzea eta hedatzea.
- Programaren aplikazioa jarraitzea eta gainbegiratzea.
- Programa aplikatzeko eta gainbegiratzeko baliabide egokiak ipintzea.
- Ustez legez kontrakoak diren jarduerak jakinaraztea.
- Irregularitasunak atzemanaz gero egin beharrekoa eta diziplina-sistema.
- Programa gainbegiratzea eta etengabe hobetzea.

Zati Berezian honako gai hauek lantzen dira:

- Museoaren jarduerarekin lotura berezia duten delituak.
- Delitu horietako bakoitza egiteko arriskua prebenitzera egokitutako Museoaren arauak eta barne-kontrolak.
- Delitu horietako bakoitza egiteko arriskua murrizteko barne-organoak.

7. SALAKETEN KANALAREN PROTOKOLOA

Betetze-programa bat eraginkorra izateko, Kode Penalaren 31 bis artikuluan espresuki eskatzen da, delituak egiteko arriskua edo arrisku penalen prebentzioaren arloan barne-araudia ez betetzea eragin dezakeen edozein gertakari, gainbegiratzeko barne-organoari derrigorrez jakinarazi behar zaiola.

GUGGENHEIM BILBAO

Fundazioaren Patronatuak eta Batzorde Betearazleak, eta Tenedora eta Inmobiliaria sozietateetako Administrazio Kontseiluek 2016ko ekainaren 20ko bileretan Salaketen Kanalaren Protokoloa onartu zuten. Horren arabera, Eskuliburuan edo Arrisku Penalen Prebentzioko Betetze Programan jasotakoaren ez betetzea ekar dezaketen edo delituak egiteko arriskua izan dezaketen gertakariak Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinarazteko obligazioa dute Museoko kide guztiek.

Salaketen Kanalaren Protokolo horretan, Batzordearen aurrean salaketa egiteko jarraitu beharreko urratsak arautzen dira:

- (i) posta elektronikoko bidez, helbide honetara: comitePRP@guggenheim-bilbao.es; edo
- (ii) Batzordeko edozein kidearekin elkarrizketa pertsonala eginez edo telefono bidezko elkarrizketa bidez.

Salaketen Kanalaren Protokoloak salatzailearen konfidentzialtasuna bermatzen du eta salatutako pertsonaren eskubideak —datu pertsonalak babesteko araudian aitortutakoak barne— errespetatzen ditu.

8. JARDUKETA PROTOKOLOA, IRREGULARTASUNAK ATZEMATEN BADIRA.

Kode Penaleko 31 bis artikuluan jasotako beste baldintzetako bat hau da: betetze-programa bat eraginkortzat jotzeko, programa horrek programan bertan aurreikusitako neurrien arau-haustea behar bezala zigortzeko diziplina-sistema bat eduki behar du.

Legezko eskakizun hori betetzeko asmoz, Batzorde Betearazleak, Fundazioaren Patronatuak eta Tenedora eta Inmobiliaria sozietateetako Administrazio Kontseiluek, 2016ko ekainaren 20an egindako bileretan, irregulartasunak atzematen diren kasuetarako jarduketa-protokolo bat onartu dute. Museoaren barruan delituzko gertakariak edo Betetze Programa urratzen dela atzemanaz gero nola jardun behar den adierazten da protokolo horretan.

Zehazki, Protokolo horrek, alde batetik, ustezko arau-haustea atzeman ondoren barne-ikerketak nola egin behar den erregulatzen du eta, bestetik, ikerketak arau-haustea egon dela berresten badu aplikatu beharreko diziplina-sistema finkatzen du. Hori guztia aplikatzeko araudian xedatutakoaren kalterik gabe.

9. KONTROLEKO EGITURA ORGANIKOA

Arrisku penalen prebentzioaren arloan Museoaren egitura organikoa honako honetan oinarritua dago:

- (i) Fundazioaren, eta Tenedora eta Inmobiliaria sozietateen organo komun bat egotea, hau da, Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea. Kontrol eta ekimeneko botere autonomoak dituen batzorde honi, Betetze Programaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratzeko ahalmena eman zaio;
- (ii) hiru erakundeetako goi-zuzendaritzen konpromiso eta laguntza handiena, arrisku penalak prebenitzeko, eta erakunde guztietarako balioko duen Betetze Programa bat ezartzeko eta eraginkortasunez aplikatzeko; eta
- (iii) Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordearen funtzioak betetzeko behar diren aurrekontua eta laguntza emateko langile-kopuru egokia.

10. ARRISKU PENALEN PREBENTZIOKO BATZORDEA

Betetze Programa ezartzeko, aztertze eta kontrolatzeko funtzio espezifikoak dituen organoa da Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea. Honako hauek osatzen dute: Zuzendari Nagusiak, Giza Baliabideen eta Kalitateko Zuzendariak, Idazkaritza Nagusiko Zuzendariak, Finantzen Zuzendariordeak, eta Aholkularitza Juridikoko eta Barne Kontroleko Zuzendariordeak.

Hona hemen Batzordearen funtzioak:

- (i) Betetze Programaren aplikazioa gainbegiratzea.
- (ii) Museoaren Jokabide Arauetan proposatuko diren aldaketa azpimarragarrien berri ematea.
- (iii) Betetze Programan sartzea komeni diren aldaketak urtero ebaluatzea, bereziki erregulatuta ez dauden arrisku-arloak eta hobetu daitezkeen prozedurak atzematen badira.
- (iv) Museoan delituak egitea saihesteko helburuarekin barneko kontrol eta arau egokiak onartzeko proposatzea.

GUGGENHEIM BILBAO

- (v) Betetze Programa behar bezala gauzatzeko behar diren ekintzak burutzea.
- (vi) Betetze Programa aplikatzeari buruzko aldizkako egiaztapenak egitea.
- (vii) Betetze Programaren inguruan Museoko langileen prestakuntza gainbegiratzea.
- (viii) Salaketen Kanalean jasotzen diren salaketak biltzea eta bideratzea.
- (ix) Eskuliburuko arau-haustea edo Museoan delitua egitea eragin dezakeen edozein gertakariri buruz egiten diren barne-ikerketak hastea eta zuzentzea, eta dagozkien zigorrak ezartzeko proposatzea organo eskudunei.
- (x) Salaketen Kanalaren bitartez egiten diren salaketa guztien erregistroa osatzea.